**Este es el título del seminario que durante los días 29 y 30 de junio celebró en la UNED de Bergara, dentro de sus cursos de verano. Mikel Aramendi, Laura Gonzalez de Txabarri, Carlos Taibo y Mikel de la Fuente, abordaron la "salud" y perspectivas del Tratado tras el NO de Francia y en Holanda; en qué situación se encuentra la tramitación de la directiva Bolkestein, y realizaron una lectura de hacia dónde camina Europa desde una visión sindical.**



# Kaleratze gero eta merkeagoa

Oraingo lan erreformak beste urrats bat eman du betiko norabidean: kaleratze gero eta merkeagoan. Enpresaburuak eta Lan Ministroa bat etorri dira aitortzerakoan eze, "mugagabeko kontratazioa sustatzeko kontratua" delakoaren erabilpenak, praktikan kaleratzearen merkeagotzea dakarrela. Hori da kontua, eta ez laneko kontratuaren egonkortasuna.

Laneko eskubidea lan egonkor baterako eskubidea esatea adina da, edo izan da. Garai batean egonkortasun hori bermatua egon izan da legez, kaleratzeko erabakia kausala izatea behartzen baitzen, motibo batean oinarritua; osterantzean, motiborik ez izanez edo bidegabekoa izanez gero, enpresa kondenatua zegoen langilea bere lanpostuan berrartzera. Erreformaz erreforma, egonkortasunaren printzipioa printzatzen joan da.

Lehenbiziko pitzadura izan zen kaleratze baliogabeko eta kaleratze bidegabekoaren arteko bereizketa egitea, bidegabekoaren kasuan enpresa haizu zelarik langilea kalean lagatzeko, kalteordain bat ordaintzearen truke.

1994-ko erreforman, baliogabeko kaleratzeak mugatu egiten dira erabat. Adibide gordina dira Epaitegi Goreneko 2004-07-12-ko eta 2005-05-23-ko epaiak (A. 7075 eta 9656): sobera gaixoaldi izandako langile baten kaleratzea, "errentagarritasun" faltan oinarritua funtsean, haizu dira enpresentzako, legezko kalte-ordaina ordaintzearen truke.

2001-ko erreforman, gauzarik bitxiena legeztatzen da: kaleratze-gutunean bertan, kaleratzeko arrazoiak adierazi eta gero, enpresa haizu da despidoa bidegabea dela aitortu ahal izateko, kalteordaina sartu eta tramiteko soldatak aurrezteko modu bezela. Lege-iruzurra, legeztatua!

## Bide beretik 2006-ko erreforman

Oraingo erreformak kaleratzeko kostuen merkabidean urrats bikoitza egin du. Behin berriro, hirugarren aldiz, "mugagabeko kontratazioa sustatzeko kontratua" delakoaren erabilpenari epealdi berria ireki dio, dakigunez, kaleratzeagatik kalteordain murritzagoa duena, arrazoi objektiboengatiko kaleratzea izanez gero.

Gertatzen da arrazoi objektiboengatiko despidoetan ez dagoela aitortzerik kaleratze-gutunean bertan kaleratzearen bidegabekotasuna, horretaraka tramiteko soldatak aurrezteko -bakarrik diziplinako kaleratzeetan-, eta beraz, kaleratzearen gastuak igo egiten zaizkiola enpresari.

Beraz, erreformak horri ere eman dio soluziobidea: diziplinako despidoetan bezala, "mugagabeko kontratazioa sustatzeko kontratua" delakoa duen langilea kaleratzeko orduan, enpresariak haizu dira burutu nahi duten kaleratzea bidegabekoa dela aitortzeko, kalteordaina depositatzeko eta tramiteko soldatak aurreztu ahal izateko. Lege iruzurra birritan legeztatua.

**Bizente Harriola**

La nueva reforma laboral ha dado un paso más en el abaratamiento del despido

# Reforma laboral 2006 empeorando el empleo

Se ha publicado el Real Decreto-Ley 5/2006, de 9 de junio (BOE del 14), “para la mejora del crecimiento y del empleo”. Se trata de la reforma laboral anunciada. Interesa entresacar dos medidas: la posibilidad de convertir contratos temporales en el llamado contrato de fomento de la contratación indefinida --medida que entra en vigor a partir del 1 de julio--; y la limitación a la contratación temporal sucesiva --que ha entrado en vigor a partir del 15 de junio--.

**Contrato para el fomento de la contratación indefinida**

El Real Decreto-Ley establece, con efectos a partir de 1 de julio, que las empresas pueden convertir o sustituir los contratos temporales, incluidos los de formación y en prácticas, celebrados con anterioridad al 31 de diciembre de 2007, por el denominado contrato para el fomento de la contratación indefinida (contrato de carácter indefinido pero con indemnización más barata en caso de despido improcedente por causas objetivas: 33 días/año con el tope de 24 mensualidades, en vez de 45 días/año con el tope de 42 mensualidades).

Se trata de la tercera vez (después de la de 1997 y 2001) que se abre tal posibilidad.

Hay que tener en cuenta al respecto que cuando el contrato temporal que se quiere convertir en indefinido es fraudulento, tal contrato ya es por tiempo indefinido en virtud del art. 15.3 ET, y que la conversión de dicho contrato, inicialmente nulo por fraudulento, en el indefinido para el fomento de la contratación, al amparo del Real Decreto-Ley, no tiene operatividad jurídica; constituiría otro fraude de ley. La indemnización en caso de despido improcedente siempre sería la de 45 días/año del contrato indefinido ordinario, y no la inferior de 33 días/año del contrato para el fomento de la contratación indefinida que se suscriba. Así se establece en las sentencias del TSJ de Cataluña de 29-05-2001 (A. 2596), 22-05-2002 (A. 2139), y 13-11-2002 (A. 2003/102), y en la del TSJ de Canarias de 17-10-2003 (A. 2388). Se trata, en definitiva, de la doctrina de la renuncia nula de derechos que aplica el TS, por ejemplo en la sentencia de 20-02-97 (A. 1457). En este sentido se pronuncia una de las sentencias: “...la trabajadora suscribió inicialmente un contrato de trabajo para obra o servicio determinado, y, posteriormente, un contrato indefinido, pero esta circunstancia no conlleva por sí sola la reducción de la indemnización, sin que pueda ser aceptado el argumento de que no pueda ahora cuestionarse la temporalidad o no del primero de los contratos suscritos, al tratarse de una temporalidad ya superada, pues, si [...] el contrato ya era indefinido, por haberse suscrito en fraude de ley, no puede la empresa recurrente basarse en un requisito meramente formal de suscribir un nuevo contrato para intentar acogerse a lo dispuesto en la disposición adicional primera de la Ley 63/1997, previsto para la conversión de contratos temporales en indefinidos”.

**Limitación a la contratación temporal sucesiva**

El Real Decreto-Ley incorpora, con efectos a partir del 15-06-2006, una nueva redacción del art. 15.5 ET, según la cual los trabajadores/as que en un período de 30 meses hubieran estado contratados durante un plazo superior a 24 meses, de forma continuada o con interrupciones, para el mismo puesto de trabajo con la misma empresa, mediante dos o más contratos temporales, directamente o a través de ETTs, con iguales o distintas modalidades de contrato temporal, adquirirán la condición de trabajadores fijos.

De acuerdo con la disposición transitoria segunda del Real Decreto-Ley, a efectos del cómputo de número de contratos, sólo se toma en cuenta el contrato temporal vigente a la fecha de entrada en vigor del Real Decreto-Ley (15 de junio de 2006), y no los anteriores.

Como todo el tema de la contratación temporal, el cumplimiento de esta nueva disposición por las empresas se espera conflictivo, ya que las empresas van a jugar con la rotación de puestos y con el concepto de puesto de trabajo. Por otra parte, no se incluye en la limitación la contratación a través de empresas de servicios o subcontratación.

Una pregunta que se plantea es si la condición de fijo/a que se adquiere es la del contrato indefinido ordinario, o la del contrato de fomento de la contratación indefinida. La respuesta es clara en principio: se adquiere la condición de fijo/a del contrato indefinido ordinario, que es el único contrato que se contempla en la Ley del Estatuto de los Trabajadores, en cuyo texto se incorpora esta limitación a la contratación temporal sucesiva (el contrato para el fomento de la contratación indefinida permanece regulado fuera del texto del Estatuto, y tiene un régimen específico de acceso).

## LABURREAN

### ■ Prestaciones del Fondo de Garantía Salarial

*** Límite por salarios:**

**Hasta ahora el FOGASA abona salarios pendientes por un importe que no puede exceder del duplo del SMI diario, sin prorrata de pagas, por los días pendientes, y un máximo de 120 días: 18,03 €/día x 2 x 120 = 4.327 €**

**A partir de 15-06-06 el límite viene dado por el triple del SMI diario, con inclusión de prorrata de pagas, por los días pendientes, y un máximo de 150 días: 21,035 €/día x 3 x 150 días = 9.465,75 €**

*** Límite por indemnización:**

**Hasta ahora el FOGASA abona 25 días/año, con el límite de una anualidad, sin que el salario diario base de cálculo pueda exceder del duplo del SMI diario, sin prorrata de pagas: 18,03 x 2 x 365 = 13.162 €**

**A partir de 15-06-06 abonará 30 días/año, con el mismo límite de una anualidad, sin que el salario diario base de cálculo exceda del triple del SMI diario, con inclusión de prorrata de pagas: 21,035 x 3 x 365 = 17.033 €.**

Manuel Monterok urteak daramatza mundu zabaleko itsasoetan bere bi zaletasunak uztartzen: urpekaritza eta argazkilaritza

# Itsasoz itsaso, argazkiz argazki



**Indonesia, Itsaso Gorria, Maldivak, Euskal Herriko kostaldea, Brasil, Kuba, Errepublika Dominikarra, Mediterraneoa, Kanariar Uharteak...Uda betebetean egon arren, aurrekoa ez da bidai agentzia baten eskaintzen zerrenda. Mundu zabalean kokatutako herrialde horiek, badute gauza bat komunean: urpekaritza egiteko leku ederrak dira. Urtero milaka lagunen jomuga izaten dira leku horiek, euren uretan murgildu nahi duten lagunen helburu. Hain zuzen ere, herrialde horiek guztietan izan da Manuel Montero, bere argazki kamararekin herrialde horietako hondartza handi, ur garden, animali andana eta landareria oparoa irudikatzen.**

Manu Monterok 47 urte ditu, eta ELAren delegatua da Donostiako Construcciones Murias enpresan. Hogei urte baino gehiago daramatza urpekaritza eta argazkilaritza uztartzen, bere bi zaletasun handienak. Montero Zarauzko Urpekoak Urpekaritza taldeko kidea da.

"Hasieran itsaspeko arrantza egiten nuen. Gero eta gehiago aritu, orduan eta gogo gehiago izaten nuen uretan ikusten nituen arrain, landare eta paisaia ederrak irudikatzeko. Horrela, apurka-apurka argazkiak ateratzen hasi nintzen. Zaletasun bat izatetik lehiaketetan parte hartzera pasa nintzen".

Hasieran kamara xume bat zuela hasi zen argazkiak ateratzen. Baina, motz gelditzen zela jabetuta, denborarekin ekipamendu hobea erosten joan zen. "Zenbait argazki ateratzeko kalitatezko tresnak izatea behartzen ninduten".

Azken bi hamarkadetan argazkilaritza asko aldatu dela dio Monterok, batez ere kostuei dagokienez. "Orain digitalekin kostuak asko merketu dira. Lehen, soilik argazki kamara analogikoak zeudenean, 6000 euro inguru behar zenituen argazki ekipo on bat izateko.

Egun, 900 eurorengatik oso kamara txukuna lortu dezakezu. Horrek bultzada handia eman dio urazpiko argazkilaritzari. Gutxi batzuen esku zegon jarduera bat izatetik edonoren esku dagoen jarduera bat izatera igaro da ".

## Lehiatzea gogoko

Gero eta gehiago dira urpeko argazkiak ateratzea gogoko duten lagunak. Duela bi hamarkada gutxi batzuk izaten ziren; azken urteetan, Gipuzkoa eta Bizkaian antolatu diren txapelketetan 30 lagun apuntatu izan dira.

Argazkiak digitalak edo analogikoak izan, lehiaketen arauak ezberdinak izaten dira. "Normalean barku batean sartu eta zonalde batera eramaten gaituzte. Denbora epe bat ematen digute, normalean lau ordu inguru gure lana egiteko. Kamara analogikoekin egiten diren lehiaketak zailagoak dira. 36 argazki dituen argazki-film bat ematen digute, eta 36 argazkiak aurkeztu behar ditugu. Horrek esan nahi ezin dugula hutsik egin.

Azken urteetan, ordea, dezentu ugaritu dira kamara digitalak. Argazki kamerekin egiten diren lehiaketetan, 100 argazki atera ditzakegu, eta gehienez ere 25 aurkeztu. Horrek aldaketa nabarmena ekarri du, arriskatzeko eta huts egiteko aukera gehiago duzulako egun".

Lehiaketak bi sailetan banatzen dira. Apnea (oxigeno artifizialaren laguntzarik gabe) edo botila (oxigeno artifizialaren laguntzarekin). Apnean direnean, epaileek arauak ezartzen dizkiete parte hartzaileei. "Arau horiek lekuan lekukoak izaten dira, eta lehia-

> Antes una cámara analógica buena valía 6000 euros. Ahora hay digitales por 900





*Lolo a punto de realizar una inmersión. Algunas de las fotos realizadas en Indonesia.*

keta egiten den zonaldearen ezaugarrietara egokitzen dira. Esaterako, txapelketa burutzen den ingurua arrainetan oparoa bada, 36 arrain mota ezberdin irudikatzea.

Lehiaketa oxigeno-botilarekin denean, berriz, irudikatu beharrekoa sei kategoriatan sailkatzen da, eta proba guztietan berdinak izaten dira: inguruneko argazki bat modeloarekin, inguruneko argazki bat modelorik gabe, arrain oso bat, arrain baten lehen plano bat, arrainik gabeko argazki makro bat eta hautatutako argazki makro bat".

## Goraka doan zaletasuna

Gero eta gehiago dira urpekaritza egitea gogoko duten lagunak. Euskal kostaldeko herri gehienetan urpekaritza taldeak daude, eta horietako askok argazkilartiza taldeak dituzte. Lehiaketetan parte hartu nahi duten lagun guztiei gertuen duten urpekaritza federaziora joatea gomendatzen die Monterok.

"Federazioan galdetuta, norbere herritik gertuen dagoen taldean izena emateko aukera dago. Lehiaketa gehienak klubek antolatzen dituzte, eta federatuta egonez gero, edonork har dezake parte. ".

Zalantzarik gabe, goraka doan zaletasuna da. Digitalizazioak zaletasun honen merketzea eragin du. "Lagun askok pentsatuko dute soilik kostaldeko herrietan eta itsasotik gertu bizi diren lagunak aritzen direla, baina uste hori okerra da. Esaterako, Nafarroako lagun ugari aritzen dira lehiaketetan, eta ez da harritzekoa izaten Erriberako lagunekin ere elkartzea".

Urpekaritza egiten hamaika lekutan izan den arren, badago ezagutzeko berebiziko gogoa duen leku bat: Filipinar uharteak. Hala ere, aputxo bat itxaron beharko du bere ametsa bete baino lehen. "Datorren urtean Filipinetara joan nahi dut. Ez naiz inoiz bertan izan, baina esan didatenez eta informatu ahal izan dudanez, leku zoragarria da urpekaritza egiteko. Dena den datorren urtera arte itxaron beharko dut… Ebakuntza txiki bat egin didate hankan, eta hilabete batzutan sendagileak ez dit uzten urpekaritza egiten". Ea lehenbailehen osatzen den!

**Gorka Quevedo**

La mejor época para hacer submarinismo y sacar fotos en el Cantábrico es el invierno

# UNA COSTA LLENA DE VIDA

**Manuel Montero ha estado en un montón de países practicando su pasión favorita: sacar fotos debajo del agua. De todos los lugares que conoce, se queda con Indonesia. "Es un sitio casi perfecto. Las condiciones del agua son fabulosas casi todos los días del año. Además, hay un montón de especies que no se encuentran en otros lugares".**

**Pero, sin duda, la zona que mejor conoce es la costa vasca. "El problema suele ser encontrar buenas condiciones para sacar fotos. En un año te puedes encontrar con 60 días aptos, y que, además, coincida que tú tienes libre, 20".**

**"En el Cantábrico hay mucha vida, es un mar muy rico en especies. Desde luego, que nadie piense que se va a encontrar tiburones, pero la variedad de peces y plantas es enorme. Sobre todo, hay muchas especies diferentes cerca de las rocas, muy bonitas".**

**Para Montero, la mejor época para hacer submarinismo en el Cantábrico es el invierno, aunque reconoce que el agua suele estar muy fría. "Si la mar está en calma, es la mejor época, sobre todo en lo que a visibilidad se refiere. En verano, con el calentamiento del agua, las plantas y las algas florecen, y suelen producir una especie de placton verde. El agua suele estar como más sucia, y la visibilidad es menor. Eso sí, tengo que reconocer que en invierno el agua suele estar muy fría, a unos 10 ó 12 grados".**



# GUTUNAK
# CARTAS

**Esta sección pretende ser una tribuna abierta a las opiniones de nuestros/as afiliados y afiliadas sobre la actualidad económica, social y laboral. Aquellos/as que lo deseen deben enviar sus cartas a la siguiente dirección: Landeia, Cartas de los lectores. Barrainkua 13, 48009 Bilbao. Por problemas de espacio les pedimos que las cartas no excedan de las 20 líneas.**

## Euskal Eskola Publikoa erdalduntzeko moduak: eguzkia ilun dezagun

Pozgarriak izan dira maiatzaren 27ko eguna –Bai Eskolak euskalduntzeari! Kanpainako manifestazioa– eta maiatzak 28koa –Elorrioko Ibilaldia–. XXI. mendea hasi eta eguzki distiratsua euskararen zeruertzean. Baina ez da hala gertatzen leku guztietan: Hezkuntza Sailak debekatu egin dio Zumaiako Institutuari Elektrizitateko Erdi Mailako Zikloa eskaintzea, D ereduan. Lau urte ditu ziklo horrek, eta leku gutxitan bezala eskaintzen da euskaraz. Gainera, azken urteotan apustu eta lan handiak egin dira: besteak beste Instalazio Bereziak izeneko gela bat muntatzea baliabide ugarirekin (atezain automatikoak, segurtasun sistemak, hari musikala, antena mota guztiak, etab.)

Hori dena osatzeko, eta gaur egungo gizartean energia-iturri berriztagarriak eta ez kutsakorrak aztertzeko behar handia dagoenez, eguzki-plaken bidezko instalazio oso bat ipini da: plaka fotovoltaikoak jarri dira ikastetxearen hegoaldeko paretan. Plaka fotovoltaiko horiek lortzen duten eguzki-energia aski da gela horretako iluminazio eta argindar beharrak betetzeko (ordenagailuak, ekipoak...), eta, gainera, praktikak egiteko balio dute: bai Instalazio Bereziak izeneko ikasgaiaren barruan, bai langileentzako ikastaroetan.

Hain zuzen ere, arrakasta osoz bukatu berri da aurtengo bigarren ikastaroa, *Eguzki-plaka fotovoltaikoak instalatzea eta mantentzea* izenekoa. Denera 24 lagunek hartu dute parte, eta asko izan dira parte hartu ezinik geratu direnak, plazak bete direlako. Nork bere etxean horrelako instalazioak jartzen ikasteaz gain, dauzkagun kontsumo-ohiturak modu zuhur batean aztertzeko aitzakia polita.

Laburbilduz, esperientzia polita izan da iraun duen bitartean: Hezkuntza Sailaren erabakiz, Lanbide Heziketan euskarazko ziklo bat kendu nahi da eta elektrizitatea ikasi nahi duenak kanpora joan beharko luke. Hori bai: ia seguru erdaraz egitera. Irakasleak, zuzendaritza eta gurasoak goizeko 9etan Lakuara negoziatzera joan, eta Hezkuntza Sailekoen esana: merkeagoa omen da ikasleak hartu eta Estatu Batuetara bidaltzea. Ez gaude seguru haraino helduko diren, baina segurua da zumaiarrek –berdin Urola eta Deba bailarako herritarrek– hezkuntza publikoan eta euskaraz orain arte Zumaian bertan ikas zezaketen zerbait, hemendik aurrera Tolosan ikasi beharko luketela. Gainera, Urola-Kostako bailaran Lanbide Heziketako Goi Mailako zentrorik eduki ez, eta kendu egin nahi da lehendik dagoen eskaintza urria. Akabo da Zumaia aldeko langileek orain arte jasotzen zuten ikastaro-eskaintza: bost urtean 4000 ordu eta 300 langile inguru. Hemen zerga gutxiago ordaintzen ditugulako ote da? **Horrela ibili beharko da, nonbait, Lanbide Heziketako Zuzendaritza ekonomisten eskuetan egon, irakaskuntza pribatuaren aldeko apustua egin, eta pertsonak ez baizik zenbakiak ikusten diren bitartean**. Eta Zumaiatik oso hurbil, ikasle euskaldunak askoz gehiago izan erdaldunak baino, eta A eredua aurrera! **Agian dirua aurreztuko dute horrela, baina baita Lanbide Heziketa are gehiago erdaldundu eta euskararen zeruertza ilundu ere**.

***Pedro Iribar,*** *Zumaiako Institutuko Zuzendariordea;* ***Antton Garikano,*** *Tknika, Lanbide Heziketaren Berrikuntza Zentroko itzulpenen arduraduna;* ***Txinparta,*** *Zumaiako Euskara Taldea*

## ESANDAKOAK HAN DICHO...

✓ **"SI MONTENEGRO ES LIBRE PARA DIVORCIARSE, ¿POR QUÉ NO LOS VASCOS O LOS CATALANES, LOS FLAMENCOS, LOS ESCOCESES O INCLUSO LOS CORSOS?"**
***Editorial del periódico francés Libération.***

✓ **"TXARTO KUDEATU DUTE GLOBALIZAZIOA, ETA ONURA BAINO KALTE GEHIAGO EKARRI DIZKIE BERHARTSUEI"**
***Joseph Stiglitz, 2001eko Ekonomia Nobel sariduna.***

✓ **"FRANCIA CONTRIBUIRÁ AL PROCESO DE PAZ SI SE LO PIDE ZAPATERO"**
***François Maitia, dirigente del Partido Socialista Francés.***

✓ **"BOLKESTEIN ARAUAK' ARGI UTZI DU ZEIN DEN EUROPAN DAGOEN EZTABAIDA IDEOLOGIKOA; EB BERA INTERES EKONOMIKOEI ERANTZUTEKO SORTU ZEN"**
***Angela Elias. EHUko Lan Harremanen Eskolako irakaslea.***

✓ **"EN UN FUTURO HABRÁ QUE CAMBIAR LAS LEYES QUE NACIERON EN MOMENTOS EXCEPCIONALES"**
***Jaime Tapia, Portavoz de Jueces para la Democracia.***

✓ **"UN PAÍS ESTÁ SOMETIDO SI DEPENDE DE OTROS PARA SU ALIMENTACIÓN"**
***José Bové, lider del movimiento antiglobalización.***

MONTXO. (Berria, 2006-6-28a)



# HEMEROTEKA

**Gara (2006-VI-18a)**

**JULEN ZABALO, SOZIOLOGOA**

## Autodeterminazioa eskubide bat da?

Autodeterminazioa denon ahotan dago azkenaldian, baina nahaste handia sortzen du, ez baita oso termino zehatza, kontrakoa dirudien arren. Batzuek independentziaren pareko bihurtu dute, besteek EH-n lekurik ez duela pentsatzen duten bezala. Eta mutur horien artean hainbat iritzi desberdin. Badago zer hausnartu gai honen inguruan.

### Autodeterminazioa, baldintzapeko eskubidea

Aurreko galdera egiten dugu, ez baitago argi autodeterminazioa berezko eskubidea den, eskatzen duenari halabeharrez eman behar zaiona, alegia. Abertzaleok ez dugu zalantzarik Euskal Herriak autodeterminatzeko duen eskubideaz; hala ere, abertzale gehienek ez lukete onartuko autodeterminazioa edozein herriri ematea, horrek Euskal Herriaren nolabaiteko debaluaketa ekarriko luke eta. Horren aurrean, euskal nazionalismoak autodeterminazioa nazio kategoria lor dezaketen herrientzat bakarrik nahi du, eta ez edozein herrirentzat. Pentsa dezagun Espainiako eta Frantziako estatuetan zenbat herriri onartuko geniokeen eskubide hori (eta zenbati ez), eta konturatuko gara egiten dugun mugaketaz.

Ez gara eskubide bat zer den eztabaidatzen hasiko orain, baina izatekotan, euskal nazionalismoarentzat, autodeterminazioa baldintzapeko eskubidea da. Hots, baldintza jakin batzuk betetzen dituenari bakarrik onartu ahal zaion eskubidea. Eta hori baieztatzea garrantzitsua da, ezen, baldintzak ipintzen hasita, alde guztiek dute halakoak ipintzeko eskubidea, eta ez alde batek bakarrik. Denontzako eskubide unibertsala dela esango bagenu, ez genuke edukiko halako arazorik, baina behin baldintzak ipintzen hasita, ezin dugu esan baldintzak guk bakarrik ipintzen ditugula.

### Autodeterminazioa Euskal Herrian

Baldintzak ipintzeak, ordea, ez du esan nahi onartu beharrekoak direnik. Alderantziz, baldintza horiek onartezinak izan daitezke, guk ipinitakoak ere onartezinak izan daitezkeen modu berean. Horietako lehena, eta egun nahiko gainditua, denentzat horrela ez den arren, autodeterminazioa koloniekin parekatzen duena da. Are gehiago, Europan koloniarik ez dagoenez, eta bai estatuak, eskubide hori ez da Europan erabilgarri. Ikerlarien artean, gutxik defendatzen dute argudio hau, baina bada politikari bat baino gehiago horrekin tematurik dagoena, eta gaia desitxuratzen laguntzen duena (Patxi Lopez, edo Solana ikusi ahal izan ditugu halakoak esaten). Bitxia da, bestalde, autodeterminazioak Europan lekurik ez duela esaten duen argudioa, berez Europarako sorturiko doktrina baita, eta Europako hainbat gai konpontzeko balio izan baitu. Eta horietako azkena oso hurbil daukagu, gainera, Montenegroko auzia autodeterminazioaren bidez konpondu baitzen, eta Montenegro, jakina, Europan dago.

Onartezina iritzi behar zaio, halaber, autodeterminazio eskubide hori, izatekotan, espainiar edo frantziar guztiei dagokiela esateari. Hori ere arazoa desitxuratzea da, logika onean, pentsatu beharko bailitzateke erabakia arazoa jasaten dutenei dagokiela. Gutxieneko jokaera etiko batek horixe bera eskatuko luke, bestela edo koakzioan edo gehiengoaren diktaduran jausten gara eta. Zorionez, kasu honetan ere, Montegroko esperientziak argudio honen gaindiketa erakusten digu.

Aurrekoarekin askotan loturik, beste argudio batek esaten du edozein aldaketak aurretik isla eduki behar duela legerian. Noski, legeria hori estatuak kontrolatzen du, eta ez ditu gauzak errazten. Hortik dator hainbat ahalegin legerian zirrikituren bat aurkitzeko, eta nolabaiteko aldaketa bat proposatzeko. Ahalegin hutsalak dira, legeak ezin baitira aurretiko baldintza gisa ulertu; gizartea ez zaie legeei makurtu behar. Legeak *de facto* dagoen egoera baten isla izan behar dira. Lehenengo da egoera, eta gero legea, ez alderantziz.

### Gatazka politikorako konponbidea, balio gehitua

Baldintzak hor daude, beraz. Denek uste dute baldintzak ezarri behar direla, baina kritikatu egiten dituzte besteak ipinitakoak. Badago, ordea, baldintza egoki eta onargarririk ipintzerik? Zeintzuk? Ikertzaile gehienen ustez, testuingurua ondo aztertu behar izaten da. Eta EH-n testuinguru horrek gatazka politiko luze batez hitz egiten du.

Testuinguru horretan, autodeterminazioak bere ahalmen guztia lortzen du, apurka-apurka lortu baitu gatazkaz hitz egiten duen testuinguru horren konponbidea neurri demokratikotzat jo behar den autodeterminazioari lotzea. Hau da, berez eduki zitzakeen balioez gain, autodeterminazioari balio gehitua eman behar zaio Euskal Herrian, bertako gatazka politikoa konpontzeko bide bezala ezaugarritzen da eta.

Batzuek, PPk, ordaindu beharreko prezioaz hitz egin dute, interpretazio horren buruan PSOEk amore emango bailuke euskal nazionalismoaren aurrean. Nahastu egiten dira, noski, autodeterminatzeko eskubidea eta egikaritzea, baina hori ez da garrantzitsuena, eta bai, aldiz, gatazka konpontzeko tresna bat eskura dagoela.

Egun gatazkaren konponketak lehentasuna eduki beharko luke, eta alde batek autodeterminazioaren inguruan jarri du konponketarako gakoa. Galdera da, beste aldearentzat kaltegarria da autodeterminazioa? Demokraziaren ikuspuntutik nekez erantzun liteke halakorik, eta horrek ematen dio balio positiboa autodeterminazioari egun.






# No hay más ciego...

**Gorka Quevedo**

Dicen que hacienda somos todos. Pero unos más que otros. El informe sobre fiscalidad en Hego Euskal Herria que acaba de presentar ELA muestra bien a las claras que mientras las rentas salariales se retratan de cuerpo entero en el IRPF (lo cual está bien) no sucede lo mismo con las rentas no salariales. Como consecuencia del bajo nivel de inspección y el consecuente fraude fiscal, las rentas medias declaradas de trabajo son muy superiores a las rentas económicas (actividades empresariales y profesionales). Las administraciones siguen haciendo la vista gorda mientras vamos camino de convertirnos en el paraíso fiscal de las rentas no salariales.

A **Al-Nakba:** El 15 de mayo el pueblo Palestino recordó el Nakba, o jornada del desastre, que supuso la creación de Israel hace 58 años. Ese día millones de palestinos se vieron obligados a abandonar sus casas y tomar el camino del exilio. Seis décadas después, la comunidad internacional sigue cerrando los ojos cuando no apoyando el genocidio que está llevando a cabo Israel contra los Palestinos. 60 años después, los horrores de Auswich se repiten contra Palestina.

B **BEC:** El BEC acogió la Fiesta de la Rosa del PSE. El bertsolari Jon Azkue cantó un bertso (escrito, traducido al castellano y distribuido a la prensa antes de que lo cantara, pero bueno), por megafonía se escuchó trikitixa, ZP fue recibido con un aurresku y para comer, marmitako. El mundo está cambiando.

C **Comisiones:** "La gran banca ya cubre el 68% de sus gastos con las comisiones". Como escribió Manel en boca de un banquero en el TMEO: "Y así, cobrando pequeñas comisiones que, por suerte, vienen en euros y la gente aún no asimila hasta qué punto son caras, los bancos hemos obtenido unos beneficios que, por suerte, vienen en euros, y la gente aún no asimila hasta qué punto son escandalosos".

D **Dornier:** El 16 de junio comenzaron los paros en Dornier, adjudicataria de la zona azul de la OTA de Iruñea, Lizarra y Tafalla. Resulta curiosa la actitud del Ayuntamiento de Iruñea de conculcar un derecho fundamental, el derecho de huelga. Para ello decretó unos servicios mínimos del ¡¡¡100%!!! en el servicio de grúas. A partir de ahora, lo de huelga a la japonesa va a ser sustituido por huelga a la barcinesa.

E **Estatut:** El 18 de junio los catalanes votaron en el referéndum por el Estatut. Bueno, no votaron ni la

mitad. Algunos dirán que casi tres de cada cuatro catalanes aprobó el Estatut. Otros, que dos de cada tres del censo no lo apoyaron. Nada es verdad, nada es mentira… ¿Cómo era?

F **Fernando Grande-Marlaska:** Juez de la Audiencia Nacional. Inquisidor del siglo XXI. El 30 de junio dejó su plaza a otro inquisidor, Garzón, como responsable del Juzgado Central de Instrucción número 5 de la AN. Su despedida, de traca (final). Tiene mérito: para muchos ha hecho bueno a Garzón.

G **Guerra total:** Así parece entender la gente de LAB la relación con ELA. Mentiras, insultos y descalificaciones de la peor especie circulan en papeles y consignas. Si Rafa Díez y compañía quieren, de verdad, reconstruir algún día la unidad de acción, deben cuidar un poco más lo que dan de comer a su gente. Porque de lo que se come se cría. Y la unidad de acción con la ELA que pintan en sus panfletos, francamente, no vale la pena.

H **Hirukide:** El Gobierno vasco aprobó un decreto por el que las familias de la CAPV cobrarán entre 400 y 900 euros por el primer hijo. Menos da una piedra, pero como recordó la Federación de Familias Numerosas de Euskadi, Hirukide, Euskadi sigue estando a la cola de Europa en materia de protección familiar". Y en otras muchas cosas...

I **Inspectores:** Leído en prensa: "España tiene un solo inspector por cada 23.300 trabajadores, la mitad que la UE". Sigue la noticia. "La falta de medios de control es una de las razones que explican que España se encuentre a la cabeza en siniestralidad laboral, con 6,6 muertos por cada 100.000 trabajadores, frente a los 4,8 de media Europea". Si ellos lo dicen...

J **Juan Manuel de Oña Navarro:** Los accidentes laborales crecen y crecen. La siniestralidad laboral es una de las grandes lacras de nuestra sociedad. El Fiscal de la sala coordinador en materia de accidentes laborales, Juan Manuel de Oña Navarro, dio una de las principales razones del porqué de esta lacra en una entrevista. "El empresario tiene sensación de impunidad".

K **Kioto:** La consejera de Medio Ambiente de la CAPV, Esther Larrañaga, afirmó el Día Mundial del Medio Ambiente que Euskadi está "muy lejos" de cumplir con Kioto. Tan lejos que emitimos casi 2,5 veces más de emisiones contaminantes a la atmósfera de lo fijado por la UE. Lo peor es que no hizo ninguna propuesta razonable para acabar con este problema.

L **Liberalización:** Los 25 alcanzaron un acuerdo para liberalizar los servicios en la UE. Un nuevo mensaje que deja claro que, a pesar de la opinión mayoritaria de la ciudadanía, la UE sigue imponiendo antidemocráticamente el liberalismo. ¿Se acuerdan de Francia y Holanda?

M **Montenegro:** Los ciudadanos de Montenegro, aplicando un derecho fundamental y reconocido por la ONU, el derecho de autodeterminación, decidieron libre y democráticamente independizarse de Serbia. Esto demuestra que en el corazón de Europa es posible conseguir la independencia en el siglo XXI. Aunque a Solana eso le parezca de *delirium tremens*.

N **Nicolas Sarkozy:** CEDESA. Así se llama la propuesta de ley para la inmigración presentada por el Ministro de Interior de Francia, Nicolas Sarkozy. Una ley que pretende blindar a Francia de la llegada de inmigrantes. Así es Sarkozy: libertad de movimientos para el capital, restricciones para las personas.

O **Onaindi:** El secretario general de CCOO de Euskadi, Josu Onaindi, no sabe hablar si no es de ELA. Mal, naturalmente. Ahora anuncia que patronal y gobierno vasco van a apoyar a ELA en las elecciones sindicales. Es lo que tienen las obsesiones, que en cuanto te descuidas un poco, se te va la pinza.

P **Primeras palabras:** Arqueólogos del yacimiento de Iruña-Veleia (Araba) han descubierto las primeras palabras comunes en euskara, datadas entre los siglos tercero y sexto después de Cristo. Serían las primeras palabras escritas en euskara de las que se tiene conocimiento. Un descubrimiento que puede romper muchos tópicos. Aunque Alonso y Rabanera hayan adelantado que seguro que fueron escritas por algún guipuzcoano que pasaba por allá.

Q **Quesada:** ELA denunció la escandalosa reducción del gasto del Gobierno Vasco en la Sanidad pública. El gasto es inferior al de cualquier país de la UE-15. Por estas razones se convocaron varias jornadas de huelga. Sin embargo, la directora de Osakidetza, Gloria Quesada, no veía razones para la huelga, "porque tienen los salarios más altos del Estado Español". Quesada, no compare nuestros salarios con los de los palentinos, sorianos, extremeños, zamoranos o murcianos. Compárelos con los de los suizos, noruegos, alemanes o suecos.

R **Reforma de las pensiones:** Los que firmaron la reforma laboral han firmado la reforma de las pensiones. Lo resumió La Vanguardia. "Cobrar la pensión será más difícil". Basta decir que se primará a los que se jubilen después de los 65 años.

S **Sandez:** Inocencio Arias, alias Chencho. El embajador de España en la ONU en tiempos de Aznar y cónsul español en Los Ángeles en tiempos de Zapatero, acaba de publicar *Confesiones de un diplomático.* El libro contiene perlas de antología: "Decir que EEUU propagó la idea de que existían armas de destrucción masiva en Irak es una sandez monumental". Tiene razón. Esa "idea" la propagaron Txirri, Mirri y Txiribitón.

T **Tony Blair:** El Gobierno británico pretende elevar la edad de jubilación hasta situarse en ¡¡¡68 años!!!. De todas formas, pueden estar tranquilos: Blair afirmó que tendrán "mejor pensión". ¿Y tiempo para gastarlo?

U **Unión Europea:** El 29 de mayo se cumplió el primer aniversario del "no" francés y holandés al Tratado Constitucional. Como no había plan B, los dirigentes de la UE siguen reflexionando para cómo imponer a los ciudadanos una Constitución que pretendía dar al neoliberalismo rango constitucional.

V **Volkswagen:** La dirección siguió ofreciendo propuestas inaceptables para la plantilla de Landaben, mientras sus beneficios crecían enormemente. A más ganancias, peores sueldos.

W **Washington:** Colleen Graffy, Subsecretaria de Estado Adjunta para la Diplomacia Pública de los EEUU, ha quitado importancia a la demanda del Comité de la ONU contra la Tortura de que se cierre Guantánamo. Es más, ha afirmado que el suicidio en este mes de junio de tres prisioneros ha sido, simplemente, "una buena operación de relaciones públicas para llamar la atención y promover la yihad". A ver cuándo ella hace una buena operación de relaciones públicas.

Z **Zarceño:** Carlos Zarceño, presidente de los Empresarios Alaveses. Una pugna entre él y José Manuel Farto provocó el abandono de éste. Desde estas líneas mostrar nuestra indignación. Ya no podremos recoger las reflexiones de Farto.

> Administrazioak lanekoak ez diren errenten paradisu fiskala bihurtzen ari dira Hego Euskal Herria

# Agenda

## ● GUFE ko oposizioak

ELAk Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak (GUFE) deitutako Enplegu Eskaintza Publikoa prestatzeko gai-zerrendak prestatu eta hainbat kategoriatan ikastaroak antolatzeko aukera jorratzen ari da. Eskaerak egiteko epea uztailaren 5ean amaitzen da, Deustuko Camino de Ugasko 5bis (Plaza eraikina) helbidean. Azterketak aurreraorako aurreikusten dira. Informazio gehiago ELAren atal sindikalean, Diputazioak Iparragirre 21 kalean duen egoitzan edo 944068123/24 telefonoetan.

## ● Nuevos locales en Eibar, Barakaldo y Agurain

Dentro de su política de ofrecer mejor y más servicios a sus afiliados y afiliadas, ELA se ha mudado a sedes más amplias y modernas en Barakaldo, Eibar y Agurain. Las direcciones de las nuevas sedes, en la página 2 de **Landeia**.







## ● Euskal Herria Zuzenean.

L´Eurock des peuples contre la world company! Euskal Herria Zuzenean, urtero Zuberoan antolatzen den jaialdia, bere hamaikagarren aldia ospatuko du ekainaren 30etik uztailaren 2ra. Jaialdi honek musika, hizkuntza eta kulturen arteko hartu-emana bultzatzea du helburu, festa eta herrien arteko elkartasuna eta adiskidetasuna uztartuz.

# ARGITALPENAK

## ● Lanaldi Murrizketari buruzko eztabaida, 1995-2005




(Jose Inazio Imaz Bengoetxea, Utriusque Vasconiae). Liburu honetan lan denboraren gaia aztertzen du. 1990eko hamarkadan, Europako langile mugimenduak lanaldi murrizketaren prozesu historikoan salto berri baten alde borrokatzea erabaki zuen: helburua, 40 orduko lan astetik 35 ordukora pasatzea bihurtzen da. Baina 2002tik aurrera aldaketak eta atzera pausuak gertatuko dira. Frantzian, sozialistek hauteskundeak galtzen dituzte, eta eskuinak 35 orduko lan astea ezarten zuen legea malgutuko du.

Alemanian, IG Metall sindikatuak, nahiz eta greba luze bat egin berriro ere, ez du lortzen lanaldi murrizketa ekialdera ere zabaltzera, eta porrot hori eta “globalizazio-deslokalizazio” eztabaida aprobetxatuz, enpresa garrantzisu asko 40 orduko lanaldira itzuliko dira. Posible ote da lanaldia murrizten jarraitzea? Eztabaida hori mantendu egingo da.

## ● Camino a Guantánamo




Este film de Michael Winterbottom, avalado por un Oso de Plata, en Berlín, es la historia de cuatro amigos británicos de origen paquistaní que en septiembre de 2001 viajaron a Pakistán para asistir a la boda de uno de ellos y, de paso, disfrutar de unas vacaciones. Tardaron dos años y medio en volver a casa. Su viaje los llevó desde Tipton hasta Karachi, Kandahar, Kabul y Kunduz, donde fueron capturados por la Alianza del Norte (formada por distintas facciones de grupos armados unidos por el objetivo de derrocar al régimen talibán). Pasaron a manos estadounidenses y de allí a la base norteamericana de Guantánamo, en Cuba, donde permanecieron más de dos años, prisioneros, sometidos a incontables humillaciones y torturas. El 5 de marzo de 2004 fueron trasladados al Reino Unido. En Londres, tras ser interrogados, fueron puestos en libertad sin cargos. Imprescindible y estremecedora, nadie saldrá igual del visionado de esta película.

**www.ela-sindikatua.org**

**Franqueo concertado
Nº 08/129**